LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Hirugarren Hiruhilekoa 2020

Erakunde autonomiaduna
EUSKO JAURLARITZA
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Organismo Autónomo del
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

Lanbide

Txosten honek, 2020ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez. Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzan eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neurtzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal Estatistika Erakundearen "Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta", BJA).

Edukia

Testuinguru Ekonomikoa 4
Lanbiden erregistratutako langabezia 5
Afiliazioa Gizarte Segurantzan 6
Kontratatutako pertsonak eta kontratuak 7
Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA) 8

Testuinguru Ekonomikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinaren (BPG) aurreikuspenak urte arteko %7,7ko jaitsiera erakusten du 2020ko hirugarren hiruhilekorako eta -%10,1ekoa 2020 urte osoari dagokionez

Eustatek argitaratzen dituen kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko jarduera ekonomikoak beherazko joera moteldu zuen aurtengo hirugarren hiruhilekoan. 2020ko udako hilabeteetan COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko hartu ziren neurriek garrantzitsuak izaten jarraitu zuten arren, une honetan eskura dagoen koiunturako informazioak jarduera ekonomikoaren hobekuntza nabarmena erakusten du. Horixe islatzen du urte arteko tasen BPGaren hazkundeak, %7,7ra jaitsi baitzen, urteko bigarren hiruhilekoan %20,0ra hurbildu ondoren. Erregistro horrek hobetu egin du Eusko Jaurlaritzak egindako zenbatespena (-%11,9), susperraldi motelagoa aurreikusten baitzuen. Hiruhileko arteko tasetan, susperraldia are dinamikoagoa izan zen. Zehazkiago adierazita, hiruhileko arteko jarduera ekonomikoa %15,2 handitu zen eta susperraldi horrek ez du aurrekaririk izan gutxienez 1995etik.

INEren lehen zenbatespenaren arabera, Espainiako ekonomia %8,7 jaitsi zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan, beherakada handia da, baina hobekuntza handia izan du aurreko aldian erregistratutako %21,5eko jaitsierarekin alderatuta. BPGaren agregatu guztiek, kontsumo publikoak izan ezik, tasa negatibotan jarraitu zuten, nahiz eta haien uzkurdura maila apalagoa izan zen. Hiruhileko arteko tasetan, hobekuntza hori askoz nabarmenagoa izan zen. Zehazki, Espainiako jarduera ekonomikoak %16,7ko gorakada izan zuen, INEk egiten duen eta 1970ean hasten den serie historikoan hiruhileko batean izan duen aurrerapen handiena baita.

Eurostatek burututako kalkuluen arabera, euroguneko ekonomia % 4,3 uzkurtu zen 2020ko hirugarren hiruhilekoan. Aurreko hiruhilekoan izandako % 14,8ko beherakadarekin alderatuta, gorakada izan zen.

Urriko txostenean, Nazioarteko Diru Funtsaren arabera, 2020ko atzeraldia sakona izango dela aurreikusten da, baina ez ekainean aurreikusitakoa bezain larria. Goranzko zuzenketa hurrengoan oinarritu da: ekonomia aurreratu nagusietan bigarren hiruhilekoko BPGaren datuak ez ziren izan hasieran espero zirenak bezain negatiboak. 2021erako, ordea, hazkunde tasak, oro har, beherantz berrikusi dira. Ekonomiaren susperraldia luzea, desberdina eta zalantzazkoa izango dela espero da. Gainera, pandemia zabaltzen den bitartean, ez da hazkunde ziurrik izango.

Ildo honetatik, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, Consensus Forecast-ek Eurogunerako egindako aurreikuspena -%7,5ekoa da 2020 urterako, NDF-k Espainiarako urte berdinerako egindako aurreikuspena -%12,8koa izanik. 2021 urterako egindako aurreikuspenak Eurogunerako eta Espainiarako +%5,3 eta +%7,2koak dira, hurrenez hurren.

Euskadiri dagokionez, Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak %10,1eko jaitsiera aurreikusten du 2020 urterako eta %8,9ko hazkundea 2021 urterako.



Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, "Koiuntura DI-DA batean 2020ko azaroa" txostena



Iturriak: EIN, Eurostat, NDF, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2020ko azaroa" txostena

Lanbiden erregistratutako langabezia

Lanbiden erregistratutako langabe kopuruak hiruhileko arteko %0,2ko igoera izan du urteko hirugarren hiruhilekoan; -286 emakume eta +596 gizonezko

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulegoetan erregistratutako **langabe kopurua** igo egin da 2020ko hirugarren hiruhilekoan (310 pertsona gehiago); guztira erregistratutako langabe kopurua 144.758 pertsonakoa izan da. Hiruhileko arteko igoera % 0,2koa izan da eta urte arteko igoera % 27,4koa.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Sexuari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbiden erregistratutako langabe kopurua 596 pertsonatan igo da gizonezkoen artean eta 286 pertsonatan jaitsi da emakumezkoen artean. Gizonezkoen kasuan, erregistratutako langabe kopurua 65.731 pertsonatan kokatu da eta 79.027 pertsonatan emakumezkoen kasuan.

Adinari dagokionez, langabetu kopuruaren igoerarik handiena, balore absolutuetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, 16-24 urte bitarteko segmentuan gertatu da (+965); ondoren, 55-64 urte bitartekoen artean (+401). Gainontzeko kasuetan beherakadak eman dira langabetu kopuruari dagokionez: 35-44 adin tartean (-849); 45-54 adin tartean (-197) eta 25-34 adin tartean (-10).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, Araba izan da langabetu kopuruan igoerarik handiena izan duen lurraldea aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+%3,1; +757). Ondoren, Gipuzkoa (+%0,4; +139). Bizkaian, ostera, langabetu kopurua jaitsi egin da (-% 0,7; -586).



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Jatorriari dagokionez, balore erlatiboetan, Lanbiden erregistratutako langabetu atzerritarren kopurua %0,9 igo da eta bertako langabetu kopurua +%0,1 aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Lehenengo kasuan langabetu kopurua 23.817 pertsonatan kokatu da eta bigarren kasuan 120.921 pertsonatan.

Ikasketa-mailaren arabera, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruan igoerarik handiena hurrengo talde bietan eman da: oinarrizko ikasketak dituztenak eta Batxilergo ikasketak dituztenak (kasu bietan +%0,5). Ondoren, unibertsitateko ikasketak dituzten langabeak (+%0,3). Lanbide Heziketako ikasketak dituzten langabeen kopurua jaitsi egin da (-%0,8).

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, hiruhileko honetan, balore absolutuetan, aurreko hiruhilekoaren alderatuta, langabetu kopuruan igoerarik handiena izan duten sektoreak hurrengoak izan dira: (I) Txikizkako merkataritza (+331); (ii) Kirol, jolas eta entretenimendu-jarduerak (+104); eta (iii) Eraikuntza espezializatuko jarduerak (+101). Langabetu kopuruan beherakada handiena izan duten jarduerak hurrengoak izan dira: (i) Enpleguarekin lotutako jarduerak (-764); Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintzako jarduerak (-248); eta (iii) Nekazaritza eta abeltzaintza (-245).

Afiliazioa Gizarte Segurantzan

Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 945.935 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %0,3 gehiago

EAEn 2020ko hirugarren hiruhilekoan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 945.935 pertsonakoa izan da: aurreko hiruhilekoan baino %0,3 gehiago eta aurreko urteko hiruhileko berdinean baino %1,6 gutxiago.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuari dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da aztertutako azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren % 53a gizonezkoak dira eta % 47a emakumezkoak (aurreko hiruhileko datu berdina).



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Lurralde Historikoei dagokienez, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (% 50,1). Gipuzkoan, % 33,6koa izan da eta Araban % 16,4koa. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian 1.583 pertsonatan igo da afiliatu kopurua; ondoren Gipuzkoa (+981) eta Araba (+479).

Jarduera Ekonomikoen atalei dagokienez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, hirugarren hiruhilekoan afiliatu gehien izan dituzten jarduera atalak hurrengoak izan dira: (i) Manufaktura industria (%17,9); (ii) Handizkako eta txikizkako merkataritza, motozikleta eta ibilgailu motordunen konponketa (% 14,3); (iii) Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (% 11,7). 2020ko hirugarren hiruhileko datuak aurreko hiruhileko datuekin alderatuta, afiliatu kopuruan igoera izan duten jarduera atalen artean hurrengoak nabarmentzen dira: (i) Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (+4.179), osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak (+3.763); eta nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantzako jarduerak (+1.036).

Jatorriari dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzara batu diren atzerritarren kopurua %5,0 igo da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kopurua guztira 70.127 pertsonatan kokaturik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua %7,4koa da, afiliatu autoktonoena %92,6koa izanik. Atzerritarren artean, gizonezkoen afiliazioa %5,5 igo da eta emakumezkoen afiliazioa +%4,3. Lurralde Historikoei dagokienez, atzerritarren afiliazioa %8,4 igo da Araban, Bizkaian +%4,4 eta Gipuzkoan +%4,1.

Kontratatutako pertsonak eta kontratuak

Hirugarren hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua %61,8 hazi da eta sinatutako kontratu kopurua guztira 188.011koa izan da

2020ko hirugarren hiruhilekoan EAEn **kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua** guztira 107.531koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino % 61,8 gehiago. Sexuari dagokionez, gizonezkoen artean % 53,5eko hazkundea izan da eta emakumezkoen artean % 71,3koa.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Ikasketa-mailaren arabera, kontratatutako pertsonen % 44,9k derrigorrezko ikasketak ditu, % 21,6k Batxilergo ikasketak, % 17,2k unibertsitate ikasketak eta % 15,8k Lanbide Heziketako ikasketak.

Adinari dagokionez, 2020ko hirugarren hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 25-34 urte bitarteko pertsona taldea nabarmendu da, % 28,5eko pisuarekin. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, aztertutako talde guztiek jasan dute hazkundea kontratatutako pertsona kopuruari dagokionez, 24 urte azpikoen adin tartea nabarmentzen da (+% 80,7).

Jatorriari dagokionez, kontratatutako pertsonen % 82,3a bertakoa da eta % 17,7ak atzerriko nazionalitatea du (aurreko hiruhileko portzentaje berdina). Atzerritarren artean, nazionalitate nabarmenenak hurrengoak dira: latinoamerikarra (% 41,2), Europar Erkidegokoak eta ez erkidegokoak (% 20,6) eta Afrika iparraldekoak (% 15,0).

Hirugarrengo hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopuruari dagokionez**, EAEn kokatutako lanpostua duten 188.011 kontratu erregistratu dira (kontratatutako pertsonak baino 1,7 aldiz gehiago). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta,% 69,4 hazi da kontratu kopurua.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Lan - kontratu motaren arabera, joera berdinak jarraitzen du: sinatutako kontratuen % 8,2 kontratu mugagabeak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,1 puntu baxuagoa) eta % 91,8 aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik % 38,4 kontratu partzialak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 5,1 puntu altuagoa).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, Gipuzkoa izan da hazkunde handiena izan duen lurraldea kontratazioari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+% 84,1); Bizkaian % 59,7 hazi da eta Araban % 73,9. Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (% 49,0; 92.083); jarraian, Gipuzkoa (% 31,2; 58.681) eta Araba (% 19,8; 37.247).

Jarduera Ekonomikoei dagokienez, hurrengoak izan dira kontratu kopuru gehien izan dituzten sektoreak: (i) manufaktura-industria (% 14,2); (ii) merkataritza (% 13,6); (iii) osasun jarduerak (% 13,4) eta (iv) administrazio jarduerak (% 11,0). Gizonezkoen artean, gehien nabarmentzen den sektorea manufaktura industria da (% 20,6) eta emakumezkoen artean osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (% 20,6).

Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

Langabezia-tasa %10,0koa izan da eta enplegu-tasa %65,7koa

Aztertutako hiruhilekoan, EAEko **enplegu tasa** % 65,7koa izan da 16-64 urte bitarteko populazioan (% 69,0 gizonezkoen kasuan eta % 62,4 emakumezkoen kasuan). Landunen kopurua guztira 916.300ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 3.100 pertsona gehiago. Gizonezkoen kasuan, landunen kopurua 481.000koa izan da (aurreko hiruhilekoan baino % 0,8 gehiago) eta 435.300ekoa emakumezkoen kasuan (aurreko hiruhilekoan baino % 0,2 gutxiago).

Adinari dagokionez, enplegu tasa handiena 25-44 urte bitarteko taldeari dagokio (% 76,9), 400.900 landun. Bestalde, enplegu tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (% 19,7), 36.000 landun. Balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, hirugarren hiruhilekoan eboluziorik txarrena izan duen taldea 25-44 urte bitartekoa izan da (-% 1,0 aurreko hiruhilekoari dagokionez); aldiz, 16-24 urte bitarteko adin tartea izan da eboluzio onena erregistratu duen taldea (+% 5,9).

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoa izan da enplegu tasarik handiena izan duena (% 67,9), jarraian Araba (% 65,3) eta Bizkaia (% 64,4). Landun kopuruari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, bilakaera hurrengoa izan da: Bizkaian +% 0,4; Gipuzkoan +% 1,6 eta Araban +% 1,0.

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, Zerbitzuen sektorea izan da okupatu gehien izan duena (% 72,1). Ondoren, Industria sektorea (% 21,6), Eraikuntza sektorea (% 5,4) eta Lehen sektorea (% 0,9).

Kontratu motari dagokionez, soldatapekoen % 70,5ek kontratu mugagabeak – finkoak izan dituzte Euskadin eta % 29,5ek aldi baterako kontratuak. Kontratuen partzialtasunari dagokionez, kontratuen % 82,7 lanaldi osokoak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,3 puntu altuago) eta % 17,3 lanaldi partzialekoak,

Hirugarren hiruhilekoan, EAEko **langabezia tasa** % 10,0ekoa izan da (% 9,6 gizonezkoen artean eta % 10,4 emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 101.800 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 8.600 pertsona gutxiago. Emakumezkoen kasuan % 2,5 murriztu da langabezia eta gizonezkoen kasuan % 12,6.

Adinari dagokionez, langabezia tasarik baxuena 45 urte edo gehiagoko taldeari dagokio (% 7,0); jarraian 25-44 urte bitarteko taldea (% 11,3) eta 16-24 urte bitarteko taldea (% 28,6). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eboluziorik onena izan duen taldea, balore erlatiboetan, 45 urte edo gehiagokoena izan da % 13,8ko jaitsierarekin; aldiz, bilakaera txarrena izan duena 16-24 adin tartekoena izan da (% 13,4ko hazkundea).

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik baxuena (% 6,9), jarraian Bizkaia (% 11,4) eta Araba (% 11,7). Langabetu kopurua Gipuzkoan murriztu da gehien (-% 21,1); Bizkaian eta Araban ere murrizketak erregistratu dira (-% 4,0 eta -% 0,5, hurrenez hurren).

Ikasketa – mailaren arabera, langabetuen % 44,4k erdi-mailako ikasketak ditu, % 28,8k oinarrizko ikasketak eta, azkenik, % 26,7k goi-mailako ikasketak.

Jatorriari dagokionez, langabetuen % 74,9 bertakoak dira, atzerritarrak, beraz, % 25,1a.